

RUSSELL MEANS

Erresistentzia indiarraren sinboloa


Dakota herriaren buruzagi historikoa eta AEBetako jatorrizko herrien arteko ordezkariarik errespetatuenetakoa hil zen urrian minbiziz, 71 urte zituela. Ameriketako Mugimendu Indiarraren (AIM) bultzatzailearen errauntsak Black Hills dakotarren mendi sakratuan zabaldu zituzten. Russell Meansek FBIren aurkako matxinada gidatu zuen 1973an.

| LANDER ARBELAITZ |

HERIOTZAK AEB osoko indiarren erreakzioak eragin ditu, azken urteotan politikaren lehen lerrotik aparte bizi bazen ere. Bera kide zen Oglala Dakota tribuko egungo buruak ekainaren 26a Russell Means Eguna izendatu du.

Means Pine Ridge indiarren erreserban jaio zen 1939ko azaroaren 10ean, eta lau anai-arrebetan zaharrena zen. Indiarrei inguru urbanoan bizitzen laguntzeko erakunde sortu eta horko zuzendari izan zen hainbat urtez. Bertan izan zituen AIMrekin lehen harremanak eta erakunde horren buru ezagunenetakoa bihurtu zen denbora gutxian. Bere jarduna ez zen AEBetara mugatu eta Hego Amerikako indigenekin hartu-emanak izan zituen, gehienbat Nikaraguakoekin. Nazio Batuen Erakundearekin ere lan egin zuen jatorrizko herrien eskubideak aitortzearen alde. AEBetako Gobernuak indiarrek bigarren mailako herritar gisa tratatzen zituela salatzeke buruturiko hainbat ekintzagatik egin zen ezagun. Besteren artean, 1972an AEBetako Gai Indiarretarako Bulegoa okupatu zuten, makina bat dokumentu suntsituz.

Bere ekintzarik sonatuena Wounded Knee herriaren okupazioa izan zen. 1973an bi hilabetez, ehunka indiarrek eta kausaren aldeko ekintzaile zuriak aipatu herrixka hartu eta erresistentzia antolatu zuten Russell gidari zela. Leku sinbolikoa hautatu zuten, bertan 1890. urtean AEBetako armadak 350 gizon, emakume eta ume dakotar hil baitzituen. AEBetako Gobernuak indiarrekin sinatutako hitzarmenak bete zitzala eskatzen zuten, baita “gobernu tribal ustelak” amaitzea ere. 71 egunez herrixkan eutsi zioten, tiroketa artean. Hedabideen arreta bereganatu zuten ekintzak, gertaerari sona handia emanez. Bi indiar eta polizia



XX. mendean eragin handiena izan duen AEBetako indigena izendatu zuen Means *Los Angeles Times* egunkariak.

bat hil ziren. Amaieran, Russell Means eta Dennis Banks buruzagiak atxilotu zituzten, baina kasua artxibatzea erabaki zuen epai-leak, indiarrei egindako bidegabekerietan zentratutako defentsaren ostean. Leonard Peltier aldiz, garaiko AIMko buruetako bat, kartzelan da ordutik eta AEBetako preso politikorik zaharrena da.

Pixkanaka, lehen lerroan egoteari utzi zion eta 1995. urtean *Where White Men Fear to Tread* autobiografia argitaratu zuen. Bertatik hartua da ondorengo pasartea: “Milaka urtez, indiarrok lurraren parte izan gara. Larreen, basoen eta mendien parte izan gara. Belar zati bakoitza, landare bakoitza, zuhaitz bakoitza ezagutzen genuen. Hai-zeak eta hodeiak ezagutzen genituen, ibaiak eta lakuak. Hegan edo lurretik arrastaka igarotzen diren izaki bakoitza ezagutzen genuen. Lurraren parte gara, baina ez gara Lurreko gauzarik garrantzitsuena. (...) Zoritzarrez, gizon zuriak bere zentzumenen plazerarekin lotzen du zorientasuna. Nire osaba Matthew Kingek esan ohi zuen burua astinduz: ‘Gizon zuria ume txiki bat bezalakoa da, pazientzia izan behar duzu berarekin’. Baina Amama Lurrari pazientzia agortzen ari zaio. Hemen-go eta mundu osoko herri indigenei gizarte eurozentrikoek egin dietena, orain beren buruari egiten ari zaizkio; lurra, airea eta ura kutsatuz, batak bestea bortxatzen du, Amama Lurra bortxatzen duten bezala. Espezieen suizidioaren amildegira heltzen ari gara”.

Hollywoodeko hainbat filmetan agertzeagatik ere egin zen ezagun Russel. Besteak beste, *The Last Mohican* filmean parte hartu zuen eta *Pocahontas* marrazki bizidunetan ahotsa jarri zion pertsonaietako bati. ■

